

2021

*Pirinioetako
eskolarteko
3. mikroipuin
lehiaketa*



Antolatzaileak

*Pirinioetako eskolak eta
euskara zerbitzuak*

Laguntzailea

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

AURKIBIDEA

LHko 3. eta 4. maila

1.saria <i>Nire txakurra.</i> Jon Nazabal Egiinoa	4
2.saria <i>Betaurreko magikoak.</i> Carlota Pino Araujo	5
<i>Paperezko hegazkina.</i> Aritz Zalba Perez	6
<i>Mirenek botereak ditu.</i> Andrea Fayanás Zazpe	7
<i>Jon eta jaguarra.</i> Gari Bueno Alberdi	8

LHko 5. eta 6. maila


1.saria <i>Esaerak.</i> Aiora Goienetxe Etxeberria	10
2.saria <i>Zauria.</i> Eidur Ekisoain Goiena	11
<i>Hogwarts.</i> Izadi Velasco Sánchez	12
<i>Mundu berri baten bila.</i> Eukene Ancho Reta	13
<i>Nire katu alproja.</i> Aitziber Hualde Calvo	14

DBHko 1. eta 2. maila

1.saria <i>Aitona Ernesto.</i> Amane Sancet Aranburu	16
2.saria <i>Izpi bat.</i> Irune Erdozain Lanas	17
<i>Nire abesti gustukoena.</i> Amaiur Oroz Esarte	18
<i>Marteko bidaia.</i> Irune Samper Zoco	19
<i>Bizitzaren zain.</i> Nora Baines Pena	20

DBHko 3. eta 4. maila

1.saria <i>Nire barneko pentsamenduak.</i> Iraia Ziaurritz Villalba	22
2.saria <i>Bi eguneko bizitza.</i> Ainara Sarrías Garcés	23
<i>Argia.</i> Joana Elizondo Saint-Esteben	24
<i>Sua.</i> Egoi Zalguizuri Ederra	25
<i>Egun handia.</i> Miren Recalde Villar	26



LH 3-4

NIRE TXAKURRA

Egun batean mendira joan ginen nire anaia eta ni. Paseo txiki bat egitera. Makilak hartu genituen etxola bat egiteko. Ibili eta ibili bapatean txakur txiki bat aurkitu genuen eta etxera eramán genuen. Oso polita eta txikia zen. Ez genuen janaria txakurrentzat eta hezurak eman genizkion. Egun oso ona izan zen. Bigarren egunean etxe bat egin nion. Bi urte pasatuta ume txiki bat kartelak jartzen ari zen eta hau jartzen zuen: txakurra galduta. Joan eta txakurra eman nion. Ume txikia hurbildu zen eta esan zuen:

- Eskerrik asko nire txakurra zaintzeagatik. Egun batean ikusi nahi baduzu etorri nire etxera.

Carlota Pino Araujo (Ezkaroze)

2. saria

BETAURREKO MAGIKOAK

Bazen behin 3 lagun Iruñean bizi zirenak. Ana, Javier eta Irune. Arratsaldean beti jolasten zuten Lizarra parkean.

Egun batean Irunek betaurreko berde batzuk aurkitu zituen txirristan.

Javierrek probatu zituen, Ana begiratu zuen eta ikusi zuen mediku bat zela.

Ana harrituta geratu zen!

Orduan Anak betaurrekoak jarri zituen:

-Irune, zergatik eramaten duzu irakasle karpeta bat?

Javierrek esan zuen:

-Uste dut betaurreko hauekin etorkizuna ikusi ahal duzula!!!!

Irune harrituta geratu zen eta berak jarri zituen.

-Javier, zergatik duzu probeta bat eskuan?

Irunek erabaki zuen aste bat Ana, beste aste bat Javier eta beste aste bat berak betaurrekoak erabiltzea beste pertsonen etorkizuna ikusteko.

PAPEREZKO HEGAZKINA

Kaixo nire izena Uni da eta paper bat naiz.

Goiz batean beste paperekin nenbilela, nire jabeak paperezko hegazkin bat egin nahi zuen. Paper bat bilatzen ari zen eta ni hartu ninduen. Tolesdura batzuk egin eta paperezko hegazkin bat bihurtu nintzen. Ni hartu, fuerte bota eta hegan egiten hasi nintzen. Momentu horretan, hegazkin hobe bat egin zuela konturatu nintzen eta ni zaborrera bota ninduten.

Zaborrean bost egun egon nintzen baina seigarren egunean, Eric deitutako ume bat ni hartu eta berarekin gelditu nintzen.

Hortik aurrera Eric eta ni oso lagun onak izan ginen.

MIRENEK BOTEREAH DITU

Bazen behin Miren izeneko neskato bat. Alaia, jatorra, naturazalea eta animaliak gustoko zituen. Egun batean Mirenek logelako armairua ireki zuen. Beste dimentsioko jungla batean agertu zen eta panda batekin topatu zen. Mirenek esan zion:

- Uiba! botereak ditut!

Mireni eta pandari kaiola handi bat gainean erori zitzairen. Pandak oihuka laguntza eskatzen hasi zen, ahotsik gabe geratu arte.

Miren eta panda 2 orduz egon ziren kaiolaren barruan. Pandak mimikaz esan zion Mireni jirafari laguntza eskatzeko. Jirafak esan zuen lore magikoa jan behar zuela. Nahi gabe Mirenek lore magikoa jan zuen, panda bihurtu zen eta kaiolatik ateratzea lortu zuten.

JON ETA JAGUARRA

Bazen behin Jon izeneko mutiko bat Kuban bizi zena. Rubioa zen eta altua.

Egun eguzkitsu batean mendira joatea erabaki zuen.

Baina bat-batean galdu zen eta oihuka hasi zen:

- Ama, lagundu!

Bat-batean Jaguar bat atera zen eta jaguarrak esan zion:


- Jon, igo edo jango zaitut

- Bale bale, igoko naiz.

Segundo batzuetan kobazulo batera iritsi ziren eta jaguarra Joni kobazulora bota zuen, harri handi bat jarri zuen

Jon ez ateratzeko.

Kobazuloa ilun iluna zegoen baina antortxa batzuk piztu ziren, perretxiko magiko bat topatu zuen eta bere etxera teletransportatu zuen. Uf!! dena amesgaizto bat zen.



LH 5-6

ESAERAK

Betidanik amaxiri pailazo bat nintzela entzun diot. Aiton- amonek oso jakintsuak omen direnez serio hartu nuen esaldi hori , kasu egin nion eta zirkuan apuntatu nintzen.

Lan hau ez zen bat ere erraza eta esaerak beste esanahia dutela ulertu nuen. Amaxik oso farregarria nintzela esan nahi zuen.

Orain, esaera hau errepikatzen dit "Gaur egin dezakezuna biharko ez utzi ". Zer esan nahi ote?

ZAURIA

Zauri bat daukat oso handia dena. Oso arraroa da: ez dut odolik baina lepotik estutu egiten nau. Duela bi egun nire lagun batekin gatazka handi bat izan nuen eta oraindik ez dut berarekin hitz egin. Badakit berarekin hitz egiten ez badut, zauria ez dela inoiz sendatuko baina saiatzen baldin banaiz denborarekin txikituko da.

HOGWARTS

Gaztelu bat dago, munduko leku zoragarri batean...

Amestu ahal duzun leku magikoena...

Han gauzak magikoak dira...

Han gauzak oso politak dira...

Baina...

Dena ezin da perfektua izan...

Nahiz eta perfektua ez izan, nire etxea da...

Han nire lagunak daude...

Han nire familia dago...

Han nire bizitza dago...

Han kontent nago...

Han ongi nago... Oso ongi nago...

Hori da nire etxea...

Horra joatea gustatuko litzaidake....

Horra bueltatzea gustatuko litzaidake...

Hor bizi naiz, naiz eta hemen egon...

MUNDU BERRI BATEN BILA

Mundua mundu zenean, Noa izeneko izarra gauero mundua argitzen zuen ilargiaren laguntzaz.

Baina XXV. mendean, gizakiaren erruz mundua eta bertakoak desagertu ziren. Gaua iritsi zen eta ilargiaren falta sumatu zuen Noak. Ondoren, bizidunak ere faltan bota zituen.

Behin, bere indar guztiekin argitu zuen gaua, eta hondamendi guztiaren erdian, Iraun izeneko mutil gazte bat bizirik ikusi zuen.

Momentu hartatik Noa izarrak Iraunen bizia argitu zuen. Biak elkarrekin, mundu berri bat sortu zuten, non diruak ez zuen baliorik...

*Aitziber Hualde Calvo
(Bizkarreta-Gerendian)*


NIRE KATU ALPROJA

Bazen behin izaera handia zuen katu bat. Herriko txakurrak zirikatzen joaten zen bailara osotik. Hiru urte zituen eta ez zuten inoiz harrapatzen.

Egun batean, txakur bat haserretuta zegoen, borrokan hasi eta txakurrak hanka bat apurtu zion. Mezkiritzen herren agertu zen, al baitari batek ikusi baitzion. Etxera etorri eta etxe barruan gelditu behar zen. Sofak apurtzen hasi zen eta kristalezko gauza batzuk ere.

Beste egun batean, beste hanka apurtu zuen. Hiru hilabetez etxean gelditu behar izan zenez, erotu zen eta niri aurpegia harramazkatu zidan. Baina, sendatu zenean etxetik bota eta alproja izaten jarraitu zuen.

Atzo berriro ikusi nuen, nola ez, maltzurkeriak egiten.



DBH 1-2

Amane Sancet Aranburu (Itzaltzu)

1. saria

AITONA ERNESTO

Ametsetan nengoen, aitonarekin. Beraren besoak somatzen nituen, nire gorputza laztantzen eta bere begi ilunekin begiratzen. Berarekin hitz egiten ari nintzen, nire egunekoa kontatzen. Badakit berak ni entzuten ninduela eta nik bera ulertzen nuela.

Egia esan, arraroa zen, ezberdina. Berarekin bakarrik egon nintekeen tokia zen.

Bat-batean, muxu bat eman zidan eta azkar ibiltzeko eskatu zidan.

Nik ez nuen ulertzen, beraren hitzek esan zidaten arte: lehenengo hitza irakurri; *ametsetan*.

IZPI BAT

Itsasoaren erdian nago, bakarrik, ezer gabe, dena ilun dago. Beno, nire txalupa nirekin dago. Zirrikitu txiki batetik izugarrizko aireak ihes egiten du. Ai ama! haizea joan ahala ura sartzen da. Ito egingo naiz? Nire bizitzako momenturik hoberenak nire burura datoz, korrika, lasterka, bata bestearen atzetik.

- Lagundu, lagundu!

Halako batean argi liluragarri bat ikusten dut urrunean. Zer ote da? Argia niregana hurbiltzen da. Gero eta hurbilago, gero eta azkarrago, gero eta min gehiago nire begietan. Mina jasanezina da!

Eta orduan...

- Esna zaitez, ordua da eta!

NIRE ABESTI GUSTUKOENA

Bat-batean melodia batek hotzikara eragiten du nire gorputzean. Ez dut ezer gehiago entzuten eta nire inguruan dudanak ez du garrantzirik. Nire munduan nago, ni eta musika, bakarrik. Geroz eta energia gehiago dut eta egun osoan sentitu ez dudana alaitasuna sentitzen dut. Ongi sentitzen naiz, inoiz baino hobeto.

MARTEKO BIDAIA

Askatasunarekin amets egin nuen, baina... *zoraututa al zaude?* galdetu zidan nire arrebak.

Martera joateko asmoa nuen, baina... *hori erraza al da?* bota zidan.

Beste puntako gauzen ezaugarriak ezagutzeko prest nengoen.

Baina nik ez nien nire inguruko pertsonei kasurik egin, horrela ez naiz inora iritsiko.

Maletak prestatu eta nire bidaia hasi zen.

Martera iritsi eta, zer?

Soinuak entzuten hasi nintzen ohe barruan, zer zen galdetzen nion nire buruari behin eta berriro.

Bakarrik nengoen maletekin eta janari pila batekin.

Ez nekien zer egin, baina... *zer ote da?* pentsatu nuen.


Gorputz barruan zerbait nabaritu nuen eta garrasika hasi nintzen.

- Aaaaaaaa!

Nora Baines Pena (Orontze)

BIZITZAREN ZAIN

Hainbeste urte pasa ditut hemen itxita, ezen aire garbi eta leun hori arnasteak mareatzen bainau. Nolakoa izango da bizitza orain? Nola egongo da familia? Zer gertatuko da hemengo lagunekin? Agian ez zait gustatzen hango bizitza edo inor ez da nitaz gogoratuko, egia esanda, urte bat pasa da bisitarik gabe. Badakit nire onerako izango dela, baina ez dut imajinatzen bizitza hesirik gabe. Beldurti deitu, baina hemen geratuko naiz, nire zulo beltzean eta nire benetako familiarekin.



DBH 3-4

NIRE BARNEKO PENTSAMENDUAK

Etxean nago, ohean sartuta aita eta amaren oihuak entzuten. Ez dakit ze pentsatu eta ez dakit pentsatzea ona den. Badauzkat gauza asko esateko baina beti gertatzen den bezala ezin dut ezer esan. Oihukatzeke gogoak ditut, zinez, behera jaisteko eta liskarrean dauden bi pertsona haiei banatzeko esateko gogoak. Egia aurrez aurre esateko eta inguruko gauza eta pertsona guztiekin bukatzeko gogoak. Bihar egun berria. Niretzat betiko eguna. Monotonia honetan sartuta egunak beti berdinak direla dirudi, estresa, nekea eta nazka eguneroko sentimenduak dira. Egunero bezala txintxo-txintxo eserita egongo naiz, irakasleak eta liskarrak entzuten, nota onak ama eta aita lasaitzen duten bakarra direla dirudielako.

Ainara Sarrias Garces (Izaba)

2. saria

BI EGUNEKO BIZITZA

Fabrikatik atera berria nintzen. Lagunek eta nik gogo handia genuen gure bizitza hasteko.

Borragoma perfektu bat nintzen orduan; kolore berdexka neukan eta nire gorputzak forma laukiduna zuen.

Erosi nindutenean neska baten etxera eraman ninduten, eta hasieran, oso ongi tratatu ninduten. Alabaina, estutxera sartu nindutenean dena aldatu zen. Boliek eta arkatzek haien hozkadurak erakutsi zizkidaten eta ikaratu egin nintzen. Klasera joan nintzenean neskak arkatzaren puntaz zulatu ninduen. Mina sentitu nuen, baina ondoren etorriko zena askoz okerragoa zen. Neskak erditik apurtu ninduen eta izugarrizko mina sentitu nituen. Orain, zakarrontzian nago, puska txikietan banatuta, nire bizitzaren amaieraren zain.

ARGIA

Hotza, hezetasuna, beldurra... Dena iluna zegoen, soilik ur tantak erortzen entzuten ziren. Bakarrik. Inor gabe inguruan. Handik ateratzeko esperantza galtzen ari zen, baina bapatean... argia ikusi zuen. Argi izpi bat. Harantz abiatu, arnasa hartu eta lasaitu zen dena ongi zegoela ikustean.

Bidea iluna egon arren, beti argi izpi bat egongo da.

Egoi Zalguizuri Ederra (Izaba)

SUA

Duela milaka urte, tximista bat izan zen sua ekarri ziguna. Hasieran, tximisten zain geunden sua lortzeko, baina denborarekin gu sortzeko gai bihurtu ginen.

Su horrek gau hotzetan berotu egiten gintuen, eta iluntasunean argitu.

Urte askoz gure lagunik hoberena izan zen, eta bizitzeko ezinbesteko bilakatu zen. Egun hotz batean, gehien behar genuen momentuan, gure kontran jarri zen sua. Mundu osoa suntsitu zuen. Bizitzarik gabe utzi zuen mundua, eta azkenik, olatu handi batek itzali zuen.

EGUN HANDIA

Duela milaka urte, tximista bat izan zen sua ekarri ziguna. Hasieran, tximisten zain geunden sua lortzeko, baina denborarekin gu sortzeko gai bihurtu ginen.

Su horrek gau hotzetan berotu egiten gintuen, eta iluntasunean argitu.

Urte askoz gure lagunik hoberena izan zen, eta bizitzeko ezinbesteko bilakatu zen. Egun hotz batean, gehien behar genuen momentuan, gure kontran jarri zen sua. Mundu osoa suntsitu zuen. Bizitzarik gabe utzi zuen mundua, eta azkenik, olatu handi batek itzali zuen.

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

